

TOKIKOM

2013ko abendua | 132. zenbakia

ailkar!

txorierriko aldizkaria



Zorionak!

2014

Urte berri on!

UXUE ALBERDI EUSKARAREN EGUNA PENTAGRAMAREN DISKOA BELDUR BARIK



**Txorierriko Mankomunitateak
eta Udalek zorionak eta urte
barri on opa deutsuez**



**TXORIERRIKO
MANKOMUNITATEA**



Derio



Lezama



Loiu



Larrabetzu



Sondika



**Zamudio
Udala
Zamudio**



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarleen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea, eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Udane Goikoetxea, Beñat Aiarza, Jabi Agirre, Bestorrene, Kepa Gonzalez, Gaizka Peñafiel, Xabier Diaz, Aner Mentxaka, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Itsasne Zubiri

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon!

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



diruz lagundutako aldizkaria



12 Uxue Alberdi

16 Euskararen Eguna

30 Pentagrama taldearen diskoa

- 4** Editoriala
- 5** Eritxia
- 6** Laburrak eta albisteak
- 11** Iruditan... Mezurik gabeko botila
- 12** Gurean izan da... Uxue Alberdi
- 14** Gaztea eta... Asier Hernandez
- 16** Euskararen Eguna
- 18** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
- 20** Bizi-bizirik, Gabonetan
- 26** Gabonetako egitarauak
- 30** Pentagrama taldearen diskoa, *Zuentzat*
- 32** Berbalagunen txokoa
- 34** Bildur bako neskak
- 36** Teknologia... Amazon eta *drone*-ak
- 37** Aikorrizketan... Elebiduna etxebiduna da
- 38** Sukaldaritza
- 41** Denborapasa



Igor, abertzale internazionalista

t: Jabi Agirre, Lezama

Kaixo Igor. Zure etxekoak ohituta zeuden zuk sarri egiten zenuen operazio batekin: arin batean mailetak prestatu eta banoa esanez abiatzen zinenean. Aitak amari batzuetan, eta amak aitari besteetan: nora doala esan dau? *–Ez dakik nik, Asia aldeko edo Ameriketako nonbaitera; egoteko lasai, balduko deuskula postalen bat eta orduan jakingo dogula non dagoan, edo bestela etxera datorrenean ekarriko deuskula oparixuren bat.*

Etxeko sukaldean daude bisitatu dituzun herrietatik ekarritako hainbat ororigarri, batzuk opor sasoikoak, baina gehienak LABeko Nazioarte Sail-eko arduraduna izatetik eratorriak: batzarrak, kongresuak... “Oxangoiti” herrikoan ere zure lagunak badabil-tza zuk bidalitako postalak errepasa-tzen.

Azken bidaia, Brasilekoa, sano sa-mingarria suertatu da etxekoentzat. Istripu larriaren berri izan zutenetik, hilabete luze jada, barruko korapiloa aska ezinik bizi izan dira. Jakitun izan dira, hemendik joandako etxeko bi-ren partez, ondo jagonda egon zare-la, LABeko lagunak eta Brasileko sin-dikalista lagunak ere gertu izan ditu-zula, baina zoritxarrez zure bihotza-ren taupadak isildu egin dira.

Dena den, Igor, nabaria da zure etxekoan onarpena, zintzoa izan za-relako, zeure buruarekin kontsekuente, eta horixe bera estimatzen dute Lezamako lagunek. Jakitun gara LABeko kideek egin dituzten ahalegi-nez, istripu egunetik hasi eta zure gorpua herriratu arte eta zure etxeko-ekin izan duten gertutasun samurraz.

Familia xume baten seme izanik Euskal Herriko eta munduko langile-riaren alde zeure baliorik onenak oparitzeko prest izan zara, azken bi-daia lekuko.

Ziztu bizian ihes doan kometaren lorratzak sumatzen ditugun lez, zure (38 urte) ekinaren onurak ere nabari-tuko dira, Lezaman, Euskal Herrian eta Munduan.



Urtarrilaren 18an senideek, lagunek eta lankideek omenaldia egingo diote Igorri Lezaman.

Adiorik ez, Igor

Gogotsu ekin genion goizari. Barikua zelako eta barikuetan beste ikuspegi ba-tetik ikusten direlako gauzak. Baina tele-fonoak jo zuen *–“Ze goiz!”*, pentsatu ge-nuen– eta gure buruaren gaineko zeru urdina gris bihurtu zen berriro ere. Ja-danik gure artean ez zeundela esan zigun linearen beste aldeko ahotsak. Isiltasuna nagusitu zen bulegoan.

Dei batzuk egin genituen eta mina, tristura, atsekabea eta malkoek itotako hitzak baino ez genituen topatu. Zer es-pero genuen, bada? Eta bulegora etorri zinen azken aldia ekarri genuen gogora. Egia esateko, denbora luzea pasatu da harrezkero, luzeegia beharbada, baina te-lefonoz behin baino gehiagotan egin du-gu berba. Zeure lan eta borrokekin beti oso lanpetuta egon zaren arren, beti to-patu duzulako tartetxo bat gure deiei erantzuteko.

Elkar ezagutu genuen eguna ere izan genuen hizpide. Brigadista joan zinen Pa-lestinara, eta bertan ikusi eta bizi izanda-koa kontatu zenigun. Lankidetza eman-kor baten hasiera izan zen hura, harrezke-ro aldizkariaren orrialdeetara ekarri ditu-

zulako zeure bizipenak, iritziak eta balio-ak. Lankidetza horren adibide dira, beste-ak beste, Kurdistanera edo Iranera egini-ko bidaiak, Belemgo Foroan eduki ze-nuen parte-hartzea, langileon eskubide-en gaineko artikulua, giza eskubideei buruzkoak, politikariaren gezurak zorrotz kritikatzeko zituztenak...

Eta pentsatu genuen ez zela izango politikariaren gezurrei buruzko zeure arti-kulu gehiagorik; ez giza eskubideei bu-ruzko artikulua gehiagorik; ezta langileon eskubideei buruzkorik ere; ez herrialdeen eskubideei buruzkorik; ez dei eta e-mail gehiagorik... Baina zugandik ikasitakoa, ezagututakoa eta jasotakoa ondo gorde-ko genuela esan genuen, aldizkariaren orrialdeetan ez ezik gure buruan eta bi-hotzean ere. Beti izango zintugula go-goan.

AIKOR! aldizkaritik gure doluminik zi-nezkoenak adierazi nahi dizkiegu zure senideei eta lagunei. Eta zuri eskertu hainbat urtez emandako laguntza eta adorea. Zauden lekuan zaudela, beti izango zara aldizkari honen parte eta sus-tatzaile.

Gogoratzen dut orain dela urtebete, agian bi, Bakioko gaztetxean itzelezko talentua zuen talde bat ikusi nuela. Harrigarriena, hala ere, taldea 18-19 urteko lau gaztek osatzen zutela ikustea izan zen. Azken urteotan gogoratzen dudun kontzertu berezienetako bat dela esatera ausartuko nintzateke, biziki harritu baininduten gaztetxoentzako talentuak, moldakortasuna (bakoitzak musika tresna bat baino gehiago jotzen zuen) eta gustu on musikalak. Txikieria batek atsekabetu ninduen, baina: Mungiako neska-mutil euskaldun kontzientziatuak izanagatik, ingelesez kantatzen zuten. Kontzertua bukatu eta berehala, ingelesez galdetu nion gitarrajoleari ea nongoak ziren. Harrituta erantzun zidan mungiarrek zirela.

Norbera libre da nahi duena egiteko, askatasunaren ariketari psikerako dagoen ariketarik osasungarriena deritzot. Ez diot inori zer egin behar duen esan nahi. Horregatik, zintzotasun osoz, pena handia sentitu nuela aitortu behar dut. Eta are penatuago sentitzen naiz euskaldunek osatutako gero eta talde gehiagok euskal

Euskal musika?



ABARKOTZEKO BEÑAT
(Mugimenduzalea)

musika egiteari uko egiten diotenean.

Ukaezina da ingelesak gure egunerokotasunean duen gero eta indar handiagoa: internet, telebista, ikasleen Erasmus programak, gero eta turista gehiago Bilbon... Denok entzun dugu ingelesez egiten duen talderen bat (ni neu Metallicazale amorratua nintzen), eta estetiko

erakargarria iruditzen zaigu ingelesez kantatzea, nahiz zentzugabeko gauzak esan, entzuten ditugun talde askoren hizkuntza delako.

Irakasle-eskolan ikasten nenbilenean, gure iritzia 1000 aldiz biderkatuko zela esan zigun irakasle batek. Gauza bera gertatzen da publikoari botere postu batetik hitz egiten dion edonoren iritziarekin. Hori ondo dakite aldareari bizkarra ematen dioteneak, eta eraikin berrien gero eta altuera beldurgarriagoetatik begiratzen gaituztenek. Baina dezibelioen indarra erabili eta irrati uhinen bidez entzuten ditugun horiek konturatzen ote dira duten botereaz? Sarrionandiaren kateak egiten diharduen errementari esklaboaren irudia datorkit gogora...

Musikari historiko bati entzun nion behin bere komunitatearen hizkuntzan kantatzen ez duen artistak ez duela komunitate horri esateko ezer. Orain bertako gazteak ingelesez abesten hasi zaizkigu.

“Xahoren twet”a



UDANE GOIKOETXEA
(Kazetaria)

Bizi legeak dio/ argi bezain idor/ gaztea hilkor dela/ zaharra derrigor./ Herri batez, ordea/ zergatik ez aitortu/ hain zahar dela zeren/ sortu zen ez-hilkor?/ Ba, hala izan dadin/ indar bat dabil hor.

Indartsua, sotila, iradokitzailea eta herrikoia da, baina, batez be baikorra Mikel Markezen hamargarren diskoa, *Indar bat dabil hor*. Une gaziotan –mezu ezkorak, krisia– gozotasunez aurkeztu deuskuz kanta mikrofono aurrean. “Ez ete da, bada, gauzak aldatzeko unea?” itauntzen dau errenteriarrek.

Hamairu doinu konposatu ditu alkarlanean: *Gauza xumeetan*; *Ez dala aski*; *No time for love* edota *Xahoren twet* deritxana. Kanta horretaz itaunduta irribarre egiten dau Markezek. Ez dauka twitterrik eta sare sozialak gure bizitzaren parte bihurtu diren ezker, twet baten neurriko kanta idatzi gura eban, 40 karakteretako. Dinotsat baikor edo ezkor, ez dakit baina, gauzak aldatu egin dira, bada, Xaho, twet baten egoteko!... Barre artean biribiltzen dau alkarriketea: Xaho biziko balitz, seguru twitterren ibiliko litzatekeena!

Xahoren, Campionen,/ Xalbadorren herri hau/ esnatzen denean/ Agirrerren, Monzonen,/ Matalazen herri hau/ elkartzen denean/ inperialismoa, intransigentsia,/ has daitezela dardarka.../

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburuntza:
8:00-13:30

Urbe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

CAFE-BAR
BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WiFi gunea

ERREKA
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Euskarak 365 Egun

t: Euskaltzaleen Topagunea

Euskararen Nazioarteko Egunaren haritik euskaraz bizi, aldarrikatu, plazartu, izan eta ospatzeko deia egin dugu Euskaltzaleen Topagunetik, herriz herri antolatuta dauden euskaltzaleen elkar-teetatik.

Aurten, Euskarak 365 Egun dituela aldarrikatu nahi dugu, euskaraz nonahi eta noiznahi aritu nahi dugula, baina orain eta hemen nahi dugula euskaraz bizi. Euskaraz bizitzeko hautua egin dugunon aldarrikapena da, baina aldarrikapenetik haratago doana, ekimenetik eta antolakuntzatik asko duena. Euskaltzaleon hautua, hautu antolatua izan da urtetan; antolatzeko izan dugun ikuspuntua hizkuntza komunitatearen garapenaren oinarrietako bat izan da: jakin dugu biltzen, elkarren arrimuan eragiten, hedabideak sortzen, euskarazko kulturegintzari bizia ematen, euskarazko hezkuntza antolatzen, aisialdia euskaraz bizitzeko guneak loratzen, helduak euskalduntzeko sarea osatzen eta transmisio mekanismoak martxan jartzen. Jakin dugu, batez ere, kolore anitzeko euskaltzaleentzat euskaltasunean oinarritutako espazio askeak egituratzen. Hautu hori egin dugun euskaltzaleok osatzen dugu euskararen herriaren muina eta erantzukizunez jokatzeko jarraitzea dago-kigu.



Gure esku dago euskararen herria osatzen jarraitzeko baldintzak sortzea. Euskaltzaleon ekarpena behar-beharrezkoa izango da etorkizunean ere, inoren zain egon gabe, jarraitu behar dugu espazioak sortzen eta geureganatzen, harreman sareak ehuntzen, ardurak eskatzen eta hartzen, botereguneetan eta inguru hurbilenetan eragiten. Euskaltzaleen esku dago euskararen herriaren garapena: herrian antolatzen diren euskaltzaleen esku, administrazioetan erabakiak hartzeko ardura duten euskaltzaleen esku, harreman sareak ehuntzen diharduten euskaltzaleen esku, enpresetan lanean eta aginte organotan ari diren euskaltzaleen esku, zure eta gure esku.

Plazara irten gaitezen, herria, kalea, plaza, euskaraz bete dezagun. Bizi gaitzen euskaldun eta euskaltzale, geu izateko euskararen herrian.

Putxera Txapelketa

Loiuko Udalak Putxera Nazioarteko Txapelketa antolatu du urtarrilaren 26rako. Parte-hartzaileek goizeko 9:00etan eman beharko dute izena eta putxerak ordu-bietan aurkeztu beharko dira. Horiek prestatzeko, osagai hauek erabili ahalko dituzte: indaba gorriak, saiheskia, odolostea, txorizoa, urdaia, baratxuria, kipula, piperra, porrua eta azenarioa. 2013ko txapelketan 85 putxera aurkeztu ziren eta parte-hartzaileen artean Txorierrri, Sopela, Bilbo, Barakaldo, Bakio, Santurtzi, Lanestosa, Tuteria eta Burgoseko lagunak ere izan ziren. Antolatzaileek datorren urteko txapelketan ere giro polita izatea espero dute. Gainera, herriko frontoia atonduko dute parte-hartzaileek bertan bazkal dezaten, lasai eta aterpean.

Txapelketak nobedade bi ekarriko ditu. Alde batetik, inskripzio-kوتا % 50 merkatuko dute eta parte-hartzaileek bost euro baino ez dute ordaindu beharko putxera bakoitzeko. Bestetik, sari gehiago banatuko dira. Hala, irabazleak 290 euro, txapela eta urrezko putxera jasoko ditu saritzat; 250 euro eta zilarrezko putxera, bigarren gelditzen denak; 200 euro eta brontzezko putxera, hirugarrenak; 150 euro, laugarrenak; eta 100 euro, bosgarrenak. Horrez gain, ardoa eta txakolina banatuko da parte-hartzaileen artean eta putxera bat emango diote indabarik goxoan prestatzen dituen loiuztarrari. Informazio gehiagorako eta erreserba egiteko, 688 679 588 telefonora dei daiteke.

Aislamientos Derio Tabikeak
Pladurrezko sabaia eta apalategiak
Sabai erregistragarriak
Isolamendu termiko eta akustikoa
Alertza Ibaia plaza, 6 - 48160 Derio
T: 670 497 928 - F: 944 541 121
www.aislamientosderio.com

ADARVE KAFETEGIA
Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA
Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Abelino Arraindegia
Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

BIZKAIA
irratia
BIZKAIA IRRATIA Txorierrin
F.M. 102.6 Mhz
www.bizkaiairratia.com



Urtarrilak 4, 18:00etan
LAINOMENDIren
gabonetako ekitaldia
Derioko kiroldegian

Zorionak eta urte berri on!





electricidad derio elektrizitatea
Koadro elektrikoak • Instalazioak • Mantentzea
*Proiektuak eta
material elektrikoaren salmenta*

Aizkorri Kalea, 1 - Telf / Fax: 94 454 31 48 - 48160 DERIO (Bizkaia)



ESTANKOA Ana Artiñano Inchausti



Mungialde etorbidea, 12 - 48160 Derio
Tel/Fax: 94 454 15 41
anaarti @euskalnet.net

*Zorionak eta
Urte Berri On*



*Liliak
Loradenda*

www.liliak.net
facebook: liliak loradenda
amalaarenteria@euskalnet.net

Erdiko Kalea, 2 • DERIO
94 454 12 23

X Kottxa Plaza, 2 - 4. D
48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 944 54 27 19

Estudios 10 Ikastegia

Pakearen Plaza, 3 - behea
48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 944 54 50 19 X



Jaietan be **EUSKARA AHOAN!**
Gozatu jaiak euskaraz!




OPTICA MODERNA

Erdiko kalea, 4
48160 Derio
Tel.: 94 454 37 99

Elkarrekin aurrera

Aurreko alean jakinarazi genuen bezala, herritar talde bat lehenengo pausoak ematen zebilen Zamudion langabeen elkarte sortzeko. Egitasmoak aurrera jarraitzen du eta dagoeneko elkar-tea ofizialki eratzeko beharrezkoak diren izapideak aurkeztu dituzte Eusko Jaurlaritzan. Izena ere ipini diote elkarteari: Elkarrekin aurrera, Zamudio langabeen elkarte.

Horrezaz gainera, biltzeko lokala ere eskuratu dute, eskola zaharretako hirugarren solairuan, eta martitzenetan eta ostegunetan egongo da zabalik, 10:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Asteroko bilera egiten ere jarraituko dute.

Azkenik, esan beharra dago elkarte Zamudioko alkatearekin, Egaz Txorierriren ordezkariekin eta Bizkaiko beste langabetuen elkarte batzuekin bildu dela, haien egoera azaldu eta iritziak trukatzeko.

Dokumentala

Zorritzetan Lezamako euskara elkarteak eta Oxangoiti kultur elkarteak *Euskal Herriko altxorretan barrena* dokumentalaren emanaldia antolatu dute urtarrilaren 17rako. Hori iluntzeko 8etan izango da udal kultur aretoan, eta hitzaldi bat ere egongo da. Dokumentalean Arkaitz Astiazaranek 2013ko udaberrian Euskal Herrian zehar bizikletaz egindako bidaia jaso da.

Sondikako zinema, saritua

Platanoboligrafo produkzio-etxearen film labur bi saritu dituzte Budapesteko Faludi Youth Film Festival-ean. *Per un pugno di azioni* lanak, Kevin I. Rodríguez zuzendu duenak, "Opera primarik onena" saria eta "Argazkigintzarik onena" saria jaso zituen. Igor García sondikoztarrak film laburraren argazkigintza-lanak zuzendu ditu. Bestalde, *Superdown* lanak hirugarren saria lortu zuen festibalaren Fikziozko Sail Ofizialean.

Superdown film laburra Igor García zuzendu du. Lana "Proyecto Superdown" egitasmoaren barruan egin da eta Sondikako Udalaren eta Down Araba eta Down Asturias elkarten laguntza eduki du. Protagonista Down-en sindromea duen zortzi urteko aktore bat da. Filmean parte hartzen duten beste aktoreen artean Alex Angulo dago.

Budapestekoaz gainera, lana nazioarteko eta Estatu mailako beste festibal batzuetarako ere hautatu dute: Toluca (Mexiko), Delhi (India), Bilboko Zinebi eta Bartzelona. *Per un pugno di azioni* lanak ere nazioarteko eta Estatu mailako festibaletan hartu du parte: Lanterna eta Toluca (Mexiko), Madril, Gijon eta Gasteiz.

"Budapesteko festibalera 50 herrialdetako lanak eramán dira, eta, egia esan, oso sorpresa handia izan da sariak eskuratzea", esan digu Igorrek. "Sariok lanean jarraitzeko gogoia ekarri digute. Eta prestigio apur bat ere bai. Era berean, badira



gehigarri bat beste proiektu batzuetarako laguntza eskatzeko orduan".

Platanoboligrafo produkzio-etxea Igor García sondikoztarrak sortu zuen beste lagun batzuekin batera. Produkzio-etxeak "Publikoaren saria" jaso du Granollerseko Fantastik Fest festibalean, *Una mierda de slasher* lanari esker. Euskal Herriko Zinema Eskolarekin batera ekoiztu zuten lan hori.

Tel./faxa: 94 452 06 64
Torrelanagotxi ind. P-7
48170 Zamudio (BIZKAIA)

Restaurante
JANA JATETxea

Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak

Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra

Arbolantxa kalea, 8 - 1. ezk.
ZAMUDIO
Tel./Fax: 94 452 29 10
Móvil: 665 70 33 12

ASADOR
ARAMENDI

EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEA

Arteaga auzoa, 119
Tlfnoa.: 94 452 11 58
ZAMUDIO

luz zamudio
ARGI APARATUA

Nekazari kalea, 4 (lorja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

“Gotxa” eta De la Concepción, Bizkaiko txapeldunak

Azaroan Bizkaiko Gizon Proba Txapelketa izan zen Nabarnizen eta Iñigo Aurrekoetxea “Gotxa” derioztarrak irabazi egin zuen 85 kilotik azpiko kategorian. Derioztarrak iaz ere irabazi zuen txapelketa eta Euskadiko txapelduna ere bada kategorian horretan, eta txapeldunordea pisu libreko kategorian. “Oso pozik nago. Orain Euskadiko Txapelketa dut buruan. Uste dut badudala hori irabazteko aukera”. Aurrekoetxearekin batera Gorka eta Aitor De la Concepción anaiek hartu zuten parte Bizkaiko txapelketan. Gorka, Erandio Goikoan bizi dena, Bizkaiko txapelduna izan zen pisu libreko kategorian eta Aitorrek, Loioan, laugarren postua eskuratu zuen.

Hirurak daude Txorierri Herri Kirol Taldean eta buru-belarri dabilta entrenatzen Mungiako Udalak erabiltzen utzi dien instalazioetan. Hala, Iñigok eta Gorkak erronka berri bati egingo diote aurre urtarilean. Larrakoetxen idi-probak egongo dira urtarilaren 11n eta 12an eta kirolariei bata bestearen kontra lehiatzeko proposamena egin diete. Desafioa hilaren 12an izango da eta parte-hartzaileek 800 kiloko harri bat eraman beharko dute narrasean, ea nork mugitzen duen denbora gehien.

Bestalde, aipatu beharra dago aurtengo Gorkak Bizkaiko Txingako Txapelketa irabazi duela; eta Iñigok, Ingude eta Fardo Altxatze Txapelketak.



a: Gari Garaialde / iturria: Bertsozale Elkarte

Amets Arzallus, txapeldun berria

Hendaia-koak Bertsozale Txapelketa Nagusia irabazi du. Buruz burukoa Maialen Lujanbiorekin, aurreko txapeldunarekin, jokatu zuen. BECen 13.500 bertsozale batu ziren finala ikusteko eta han izugarritzko giroa bizi izan zen egun osoan zehar.

Kultura-txartelak

Sondikako Kultur Etxeak bat egin du kultura-txartelarekin. Txartel bakoitzak 40 euroko balioa du, baina erosleak 28 euro baino ez du ordaindu behar. Kultur Etxeak zortzi sarreretako pack-a eskaintzen du kultura-bono bakoitzaren truke. Sarrerek bost euroko balioa dute eta erabili ahal dira Sondikan ematen diren ikuskizunetarako. Txartelak BBK-ren kutxazain automatikoetan eros daitezke eta urtarilaren 31ra arte dago haiek aldatzeko aukera, udal liburutegian edo Kultur Etxeko txarteldegian.

Gurdi solidarioa

Urtarrilaren 7tik 25era bitartean jakiak batuko dira Eroski, Erecorea eta BM Derioko supermerkatuetan. Batutakoa Saharara aginduko da Euskaditik aterako den karabana batean.

Saskibaloi-campusa

Hura Bilbao Basket taldeak egingo du Derioko kiroldegian, urtarilaren 2tik 4ra bitartean. Campusa 5 urtetik 17 urtera bitarteko neska-mutilei dago zuzenduta eta Campusa goizez egingo da. Parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute eta 60 euro ordaindu. Kuotaren barnean hamaiketako, bidaiak eta aserua daude. Horrez gain, saskibaloi zale gazteek kirol-jertse bana jasoko dute. Informazio gehiago: www.campusbilbao.com.

**Ale-ahaindegia**
M^a Antonia Llodio
Txorierriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

OSKARBI
fotografoak
JOSEBA APEZETXEA
TALLER KALEA 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
TEL. 944 520 014 / 607 400 078
E-mail: apeze@euskalnet.net

**TALLERES JUAN ANDRES**
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA
Torrelarragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

LEANDRO LANDETA
**HARAGITEGIA-URDAITEGIA**
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

Izar handi bi, Txorierriko zeruan



a: Aner Mentxaka

Abenduan Izarren Distira gazteei zuzendutako talentu lehiaketaren finala izan zen Sondikako Kultur Etxean. Aurten irabazle bi egon dira: Iker Elustondo, *a capella* abestu zuena, eta Yerai Vallecillo, *beat box* saioa eskaini zuena. Saria 1.000 euroko bono bat izan da eta bien artean banatu dute. Jon Gomezek aurkeztu zuen finala eta epaimahaikide Ugaitz Alegria, Ylenia Baglietto eta Karmele Larrinaga ibili ziren. Bestalde, aurten fotokazetari-tza tailerra antolatu da lehiaketaren haritik. Tailerreko parte-hartzaileen artean egin den lehiaketa Joseba Ortuzarrek irabazi du eta saritzat tablet bat jaso du. Ondoan duzue bere lana.



IZARREN DISTIRAKO KASTINAK.-

Argazki hau Zamudioko Dorretxean eginda dago. Abenduaren 4an Izarren Distirako Galan parte hartzeko Kas-

tinak ospatu ziren arratsaldeko 17:30etan. Txorierriko gazte askok parte hartu zuten: Olaia Ibarrondo, Olaia Sararrain, Silvia Peña, Ruben Garcia, Asier Couto... etab. Argazkian ikusten dugun bezala, partaideak eta epaileak agertzen dira. Epaileak Ylenia Baglietto eta Ugaitz Alegria dira. Gala Sondikan izango da, Kultur Etxean, abenduaren 14an. Irabazleak 1.000 euroko bono saria jasoko du eta kaze-taritzat tailerrekoak tablet bat izango du saritzat.

t/a: Joseba Ortuzar

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA

94 452 1616
94 452 1624

Pol. Torrelagotiti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

LIBURUDENDA PAPERDENDA

ZAMUDIO

Gorbea kalea, 5
Teléfono / Fax: 94 452 29 10 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

EGUTEGIAK '14

Zure argazkiekin pertsonalizaturik

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

10 ^{'74} € -TIK AURRERA	4 ^{'10} € -TIK AURRERA	1 ^{'63} € -TIK AURRERA
29 ^{'04} € -TIK AURRERA	6 ^{'45} € -TIK AURRERA	1 ^{'57} € -TIK AURRERA

P. Tecnológico de Bizkaia, 105 - zam@cianoplan.es - www.cianoplan.es



Mezurik gabeko botila

Gabonetan gaude, eta sasoi honetan itxaropentsu begiratzen diogu etorkizunari. Urtea txarra izan bada, hura ahalik eta lasterren ahaztu nahi dugulako; eta urte zoriontsua izan badugu, aldiz, hura berriro errepikatzea gustatuko litzaigukeelako. Irudian ikusten dugun botilan ez dago mezurik, baina aukera ona eta nahiko poetikoa izan daiteke, urte berrirako ditugun asmoak lau haizeetara, edo uretara, zabaltzeko.

Argazkia:
Gaizka Peñafiel



Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefona: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com



SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE

Bide garbiketa | Hondakinak biltzea eta garraiatzea | Ur eta estolda-sareak zaintzea eta mantentzea | Hiri tresneria mantentzea eta zaintzea | Lorezaintza zerbitzua | Eraikinak eta lokalak barrutik garbitzea | Hondartzak garbitzea | Garbiguneak kudeatzea eta mantentzea | Lurzoruak deskontaminatzea | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

INBISA Derio Enpresa-zentroa
Astintze, 6A - 1. solairua. 48160 DERIO
www.inbisaserviciosymedioambiente.com
Tel. 94 424 38 34



“Bertsolariarena egiteko, buruan zapia ipintzen dute umeeek orain”

UXUE ALBERDI | bertsolaria eta idazlea

Uxue Alberdi bertsolariak Bertso Eskola Feminista sortu du Ainhoa Agirreazaldegiarekin batera. Uxue Deriora etorri da Euskararen Egunaren haritik antolatutako bertso-saioan parte hartzera, eta aukera aprobetxatu dugu berarekin bertsolaritzaz eta feminismoaz hitz egiteko.

t: Itxaso Marina / a: Lander Garro

Zer da Bertso Eskola Feminista?

Ez da bertsotan ikasteko eskola bat; bertsolaritzari buruzko begirada feministak garatzen hasteko, edo gehiago gartzeko, tailer bat baizik.

Tradizioz gizonezkoena izan den eremuan onartuak izateko, emakume bertsolariok estrategia inkontziente bi erabili dituzuela diozue, eta belaunaldi bi bereizten dituzue ironikoki: drag king-ak eta panpinak.

Emakume bertsolarien lehenengo belaunaldiak, edo drag king-ek, gizonezkoen moduak kopiaitu dituzte. Hau da, beste bat direla erakustea erabili dute estrategiatzat. Maialen Lujanbioren esanetan, kasualitatea ez da ezaugarri konkretu batzuk zituzten emakume bertsolarien aurrera egin ahal izatea: ahots eta gorputz sendoak, erantzuteko gaitasuna, kikitzen ez zirenak... Emakume bertsolari horiek inkontzienteki estali zuten beren gorputza, gizonekin soilik lepotik gora lehiatu ahal izateko. Inkontzienteki bazekiten emakumezkoak izate hutsagatik beren gorputzak bazuela zerbait normalik ateratzen zena, eta emakume armarik erabili gabe gizonezkoek bezain ondo

“Bertsolaritza besamotza zen, eta emakumeok faltatzen zaion besoa jartzera etorri gara”

“Emakume batek txapela jantzi zuenez, dena eginda dagoela pentsatzea arriskutsua da”

egiten bazekitela publikoari erakusteko beharra zuten.

Bidea zabaldu zieten bigarren belaunaldikoei, panpinei.

Patriarkatuari molestatzeko ez dioten emakumeak dira: neurtuak; estetikoki atseginak, gazteak; alaiak bai, baina txolinak ez; seguruak bai, baina zapaltzaileak

ez... Feminitate markatzat hartzen diren horiek jarri dituzte oholtza gainean: ile luzea, takoiak, makillajea, gona... Emakumeen gorputza identifikagarri jarri dute, baina horrek badu aje bat: gorputza eszenan jartzen denean, genero dikotomiarekin egiten da talka aurrez aurre. Hala, lehenengo belaunaldikoei gutxitan esango zieten, adibidez, gona moztuko zitetela, baina guk halakoak saio guztietan entzuten ditugu.

Zein da lehenengo belaunaldiaren ajea?

Emakumeen sexualitatea ez dela aipatu eta, ondorioz, emakumeen desioak, emozioak... ez direla bertsolaritzan existitu. Eta existitu ez direnez, jendeak ez du kodigo erreferentzialik eta ez daki benetan ari garen, aldarrikatzen... Esate baterako, Jon Maiarekin egin nuen saio batean objektuak atera behar genituen kutxa batetik, bibragailu bat haien artean. Ohituta gaude hainbat gauza eta txiste entzuten gizonen sexualitateari buruz, baina ez emakumeen sexualitateari buruz. Eta nik esan nuen askatasunean egongo ginela zakilaz adina txiste aluaz egiten genituenean, eta isiltasuna egin zen. Jonek jarraitu egin zidan, eta isiltasuna gero eta sakonago egin zen... Jonek

Euli-giroa

Bertsolaria izateaz gainera, idazlea ere bada Uxue. Esparru biak osagarriak dira gaztearentzat, ezinbestekoak. "Oso pertsona lagunartekoa naiz, parranda gustatzen zait, jendearekin hitz egitea... eta bertsolaritzak alderdi sozial hori ematen dit. Bertoak dakarren adrenalina ere gustatzen zait, saioa hasi eta zer gertatuko den ez jakitea". Baina beste alderdi baten beharra ere badu, patxada eskatzen diona, bakardadea, gaiei buruz gehiago pentsatzea...

Ipuinzalea da, irakurtzeko naiz idazteko. Gainera, urte biko nekato baten ama da eta bere egoerara perfektuki egokitzen den generoa da. "Nobela



batek konstantzia handia eta ordu asko eskatzen dizkizu; ipuin bat, berriz, errazago gorde dezakezu buruan, eta handik atera eta hara berriro sartzea ere errazagoa da". Kaleratu duen azken lana *Euli-giroa* da, egonezin giro baten kokatutako bederatzi ipuin jasotzen dituen. "Nire emozioetatik abiatutako ipuinak dira. Nik nire emakume gorputzetik ditut munduarekin harremanak, eta

gorputza oso presente dago ipuinetan. Egia da ipuin batzuk oso fantastikoak edo surrealistikak direla, baina emozioak oso lurrekoak dira, oso benetakoak eta oso fisikoak. Eta emakume baten gorputzetik pasatzen dira. Edade ezberdinetako emakumeak agertzen dira ipuinetan, zaletasun ezberdinak dituztenak, beldurtiagoak edo ausartagoak direnak..."

Txapelketa Nagusiaren parte-hartzaileen % 30 emakumezkoak izan dira aurten.

Saioetara emakumeoi emakumeak garelako deitzen digutela esaten da askotan, baina ez da esaten gizonei gizonak direlako deitzen dietela. Estitxu Izagirrek galdetu zuen behin ea emakume bertsolariok plazetan genuena kupoa ala betoa zen. Zenbatu puntuaziaz sailkatutako txapelketan dauden emakumeak, eta plaza libretan daudenak. Aurtengo urriko agendaren arabera, % 30 eta % 20 hurrenez hurren. Datuei erreparatuta, esan dezakegu, deitzen ez badigute ez dela kalitaterik ez dugulako.

Maialenek txapela janztea emakume bertsolari guztion garaipena izan zen?

Izugarri hunkitu nintzen, berak egin duena ia miraria izan delako: nola joan den bere burua definitzen, ñabardurak sortzen, bere bertsokera aldatzen, munduari begiratzeko talaia bat sortzen... Lorpen handia da historikoki eta sinbolikoki. Umeei bertsolariarena egiteko esaten zitzairen lehen, eta purua pizten zuten, txapela ondo jantzi...; orain, zapia ipintzen dute buruan. Horrezaz gainera, Maialenen ekarpena eta kalitatea bada ikaragarria, gutxienez Xabier Amuriza eta Andoni Egañaren parekoa. Nire kezka garaipena anekdota hutsa bihurtzea da: txapela jantzi zuen emakume hura. Eta nire ustez, txapelketak irabazi edo ez, Maialenek baditu gauza asko eskoletan irakatsi eta ezartzeko modukoak direnak.

esan zidan gero, plazatan 25 urte zera-matzan arren lehenengo aldia zela alua hitza erabiltzen zuena.

Zelako ekarpena egin diozue emakumeok bertsolaritzari?

Ahotsa jarri diegu emakumezkoen pertsonaiei, izan ere, gizonezko bertsolariak orain arte marraztutako emakumeak oso estereotipatuta egon dira: ama, andrea, maitalea edo alaba. Guk gure bizi-penetatik gehitu dizkiegu ñabardurak pertsonaia horiei. Bertsolaritzan hasi ginen, konplexu asko genituen eta, bertsolari osoak izateko, zerbait faltatzen zitzaigun ustea bagenuen. Besamotz sentitzen ginen, ez genekielako gizonezko bertsolariak imitatzen... Beste ekarpen bat izan da konturatzea gu ez garela besamotzak; besamotza bertsolaritza bera dela, eta gu faltatzen zaion beso hori jarzera etorri garela.

Zein izan da publikoaren erantzuna?

Nik esango nuke publikoa, orokorrean, beste ahots batzuen egarri zegoela. Baditugu plazak eta badirudi jendea interesatzen zaiola esateko duguna. Dena dela, nik arrisku bat ikusten dut: emakume bertsolari batzuk gaudenez eta, gainera, gutariko batek txapela jantzi zue-

nez, pentsatzea dena eginda dagoela, eta final batera ailegatzen ez bagara, hori dela hain onak ez garelako. Pentsatu behar dugu nola dagoen eraikita gizartea, zeintzuk diren arlo batean edo beste batzuek dituzten zailtasunak, beste batzuek ez dituztenak... Aitona bertsolariak ezagutu ditugun moduan, amama bertsolaririk ere ezagutuko ote dugu inoiz?

GABONETAN OPARITU EDERTASUNA!

TRATAMENDU INDARGARRIAK (kolore apaleko azalak, erretzaileak...) **30 €**

LASER-DIODO DEPILAZIOA

Goiko espaina **20 €**

Besapea **45 €**

Izterrondoa **55 €**

ZB

ESTETIKA-ZENTROA

Bestorrene 1, DERIO
650 94 70 57

Anguleri, 2 - IARRABETZU
94 455 81 44

www.centroesteticoZB.com

t: Gaizka Eguzkitza / a: Pakea-Bizkaia

Zelan sartu zinan Pakea-Bizkaia proiektuan?

Kasualidadez. Pakea-Bizkaia proiektuak badau alde pedagogiko bat, eta irakasleak behar zituen haretan jarduteko. Nik, besteak beste, hitzaldiak emoten dodaz eta itsasontzia ikustera datozen bisitariak hartzen dodaz. Proiektua oso erakargarria iruditu jatan, aurretiaz itsasoan eskarmenturik euki ez arren.

Monitore hasi zinan, baina tripulaztaila be izan zara...

Bai, hasikera-hasikeratik oso hartu-emon estua izan da proiektuko kide guztion artean, eta hori oso lagungarria izan da, proiektuaren parte sentiduarazoten zaituelako. Eta lehenengo egunetik animaten gaitue itsasora urtetera. Eta egun baten animau egin nintzan eta primeran pasau neban. Gainera, ez nintzan zorabiau ez ezer.

Eta Pakea-Bizkaia ontziaren hirugarren bidaian hartu dozu parte. Zelan esperientzia?

Aurten tripulataile profesionalak ez garanoi emon deuskue espedizioan parte hartzeko aukera, eta hiru moltotan banatu ginduezan. Nik lehenengo etapa egin neban, Bilbotik Patagoniara, eta hilabete bi egin nebazan ontzian. Bidaia honela izan zan: Bilbo-Kanariar Uharteak-Cabo Verde (Afrika)-Buenos Aires. Leku bakotxean egun batzuk egin genduzan bertako animaliak eta lorak ikusten eta jentea ezagutzen. Esate bate-

"Itsasoko bizimodua izan da gogorrena"

ASIER HERNANDEZ | Pakea Bizkaia proiektuko kidea

Asierrek hilabete bi egin ditu Pakea-Bizkaia ontzian. Unai Basurkoren proiektuan sartzeko aukerea sortu jakon orain hiru urte, eta Kanarietan, Afrikan eta Argentinan ibili da udan. Asierrek ez dau eskarmentu handirik itsasoa, baina orain beste bidaia bat egiteko irrikan dago. Lezaman emon euskun bere esperientziaren barri, eta orain, hemen be bai.

rako, Argentinan izugarritzko harrerea egin euskuen Euskal Etxekoek. Eta Argentinan be, Necochea izeneko herrirak baten egon ginan. Aipatzekoa da hango lagunak oso euskalduntzat hartzen dabelako euren burua, herriaren sortzailak euskaldunak izan ziralako. Gainera, baukie ikastola, euskal dantzak irakasten dira... Ikastolako zuzendaria Hondarribikoa da eta hartu-emonetan jarri zan gugaz handik pasetako. Merezi izan eban!

Zer izan da ikusi dozun onena? Eta txarrena?

Beste tripulataileakaz hartu-emonen itzela izan da. Eta gero itsasoan ikusi do-

guna zoragarria izan da: esate baterako, 20 kideko kaxalote familia bat ikusi genduan. Kontuan euki gure ontzia bezain handia zala hareetako bakotxa, 20 metro ingurukoa. Gauean ikuskizun ederrak izan doguz: zerua planetarium baten antzekoa zan, izarrez josia; uretan plankton distiratsua eta fosforeszentea ikusi genduan... Alde txarrari jagokonez, kutsadura handia ikusi dogu ozeanoan.

Hilabete bi egin dozuz ontzian. Bidaia gogorra izan da, ezta?

Bai. Itsasontzian banekian egunak eta egunak egingo genduzala inor ikusi barik lurrera heldu arte. Baina gogorrena itsasontziko bizimodua da, ordutegiak,

Lezamartua

Asierrek 24 urte ditu eta Deustukoa da, baina Txorierrin eta batez be Lezaman egin dau bizimodua. "Nire aita, Kepa, Lezamako eskolako irakaslea da eta nik bertan ikasi neban. Eta gero Deriora joan nintzan institutura. Koadrila eta txokoa Lezaman daukadaz, eta Sondikan eta Zamudion jokatut dot futbolea... Lezaman guztiek ezagutzen nabe". Horregaitik, berezia izan zan Lezaman egin eban hitzaldia. "Beti saiatzen naz hitzaldiak hurbilak izaten, eta Lezaman askoz gehiago. Lagunen artean egin neban eta oso polita izan zan".





*"Bidaiaaren alderik
txarrena ozeanoan
ikusitako dogun
zaborra izan da"*

batez be kapitaiarena, beti egon behar daualako adi. Tripulatuzaileok taldeka antolatzen genduan beharra. Esate baterako, lau ordu jarraian baino ezin dozu lo egin. Talde bakotzak ordu bi egiten zituhan kanpoan, ontzia gidetan, besteek

atseden hartzen eben bitartean. Bosgarren egunetik aurrera gorputzak ohitura hartzen dau, baina hasieran guardiak eta lotaldiak baino ez dozuz egiten.

Zer da gehien bota dozuna faltan?

Ontzian ez dozu denporarik ezertarako be, beti izaten da zerbait egiteko. Arraroa izan da okelarik ez jatea, baita erabat deskonektata izatea be, hau da, sakelako telefono barik ibiltea. Aldi berean, telefonorik ez eukitea oparia be izan da. Dana dala, lehorreratzen ginan bakoitzean, lokutorioetara joaten ginan etxe-koei telefonoz deitzera. Egia esan, ez gara hain deskonektata ibili, webgunearen bidez espedizioaren barri emoten



Asier ez zan
Antartidan egon,
baina ontzia
puntu horretara
ailegatu zan

gendualako, baina telefonoaren bidez beste era baten egin ahal dozu berba.

Eta orain zer?

Auskalo! Momentuz proiektuan jarraituko dot: bisitariak jasoten, hitzaldiak emoten, dokumentala erakusten... Erarik euki ezker, beste bidaia bat egitea gustauko litxakit. Baina diru-laguntzak behar dira horretarako. Ni prest nago edozein lekutara joateko. Bizi izan dodan esperientzia zoragarria izan da eta Pakea-Bizkaian gauza pilo bat ikasteko aukera izan dot. Esate baterako, ontzia gidetan ibili gara eta beste ontzi batzuetan urteak egin behar izaten ditue hori egiteko.

LEJARRENE JATETXEA
Garaioleku auzoa, 102 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

LOTERIA LEZAMA

BONOLOTOA
LOTERIA PRIMITIBOA
1-X-2
SARITZARRA
EUROMILIOIAK

GADONETAKO ETA ERREGETAKO
LOTERIEN ERRESERBAK

ZERBITZUA, ENPRESENTAT,
TABERNENTZAT, ETAB

ARETXALDE, 159 • 48196 LEZAMA (BIZKAIA) • TELEFONO/FAX: 94 455 64 87

GOIKO TABERNA Taberna-jatetxea
Emiliano

Misur berotak zotziberrutan • Eguneko menua eta karta
Etzara orratzako platerak • Jauertzak eta esentzialak
Itxakia zotziberrutan • Jenteki zabalak

B.º Garaioleku, 1 • Tfn. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA • Bizkaia

Club Hípico Aretxalde

Pony club • Zaldiak ikastekoak
Aiealdirako landak • Apopito zerbitzua
Salto • Txangoak • Animallaren heziketa

Telefona:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 89 • 48196 LEZAMA

**Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

Pentsu naturalak

a: Itsasne Zubiri

Abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna izan zen eta, urtero moduan, Txorierrin bat egin genuen geure hizkuntza omentzen duen datarekin. Egun horren haritik, erakunde publikoek, herritarrek, euskaltegiek eta euskara elkarteek hainbat ekitaldi egin zituzten. Esate baterako, Altzora Sondikako euskara elkarteak bertso-saioa antolatu zuen, Fredi Paia eta Beñat Ugartetxearen eskutik. Ostean, Anje Duhalde musikari lapurtarrak kontzertua eskaini zuen. Era berean, Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak *Zientzia ikuskizuna* umeentzako saioa antolatu zuen Zamudiotarren. Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak ere prestatu zituen ekitaldi batzuk Derion, azaroaren 29tik abenduaren 5era bitartean: dantza agerraldia, gazteentzako zein umeentzako antzezlanak, bertso-saioa, kalejira Taberna ibiltaria taldearekin batera... Gainera, Berbagunea antolatu zen hainbat gairi buruz berba egiteko. Hona hemen ekitaldi batzuen adibide eta irudi batzuk.

Txorierritarrok, bat eu



skararekin



ZORIONAK eta eskerrik asko gure
alboan zaudeten altzorako bazkideei.

Urte berri honetan hegan egin euskararen alde!

ALTZORA
Sondikako euskara elkarte





Txorierrri

2014. urteko urtariletik aurrera, Txorierrriko Zerbitzuen Mankomunitateak kanpaina berri bat jarriko du martxan, bosgarren edukiontziaren eta auto-konpostajearen bidez konpostajea sustatzeko. Bizkai-ko Foru Aldundiak diruz lagundutako egitasmoa da, eta informazio-liburuxka bana aginduko da etxe guztietara Erregeen Eguna pasatu ostean.

Bosgarren edukiontziak, edo edukiontzi marroiak, zein autokonpostajeak bada-karte hondakin organikoen balorizazioa, tratamendua jaso ostean hondakinok konpost bihurtzen direlako. Konposta parke publikoetan, lorategietan... erabil daitekeen ongarria da, eta autokonpostajearen kasuan, gure ortuan edo lorategian.

Sistema bi horiek ez dira berriak txorierritarrentzat. 2013. urteko lehen hiru hileroan bosgarren edukiontzi edo edukiontzi marroia ezarri zen, eta 2007. urtearen amaieran autokonpostajearen gaineko kanpaina ipini zen martxan lehenengo aldiz. Ekimen horri esker, 300 familia inguru hasi ziren autokonpostajea egiten. Bosgarren edukiontziarekin 1.300 familiak eta ekoizle handik baino gehiagok egin dute bat. Aldeko emaitzak kontuan hartuta, Mankomunitatetik gainontzeko herritar-rrak animatu nahi ditugu autokonpostajea egitera eta edukiontzi marroia erabil-tera.

Bosgarren edukiontzi

Aurreko kanpaina egin zen moduan, nahi duten familiek hauek jasoko dituzte doan: 10 litroko ontzi bat, 100 poltsa biodegradagarri, edukiontzi zabaltzeko gila bat eta pegatina bat, bosgarren edukiontziaren zein motatako hondakinak utzi

AUTOKONPOSTAJEA	
Izena ematea	Materiala jasotzea
Informazio-hitzaldietan	Informazio-hitzaldietan
Etxe guztietara aginduko den liburuxkan dagoen kupoia postaz bidalita	Bosgarren edukiontziaren izena emate-guneetan eta materiala hartzeko guneeetan
www.txorierrikonposta.com	
94 454 03 50	
Informazio-hitzaldiak	Prestakuntza-tailerrak
DERIO: urtarilaren 21ean, 19:00etan, Kultur Birikan	DERIO: urtarilaren 28an, 19:00etan, Kultur Birikan
LARRABETZU: urtarilaren 22an, 19:00etan, Anguleri Kultur Etxean	LARRABETZU: urtarilaren 29an, 19:00etan, Anguleri Kultur Etxean
LEZAMA: urtarilaren 17an, 19:00etan, Uribarri Topalekuan	LEZAMA: urtarilaren 31n, 19:00etan, Uribarri Topalekuan
LOIU: urtarilaren 20an, 18:30ean, Ingurumen Aretoan 19:30ean, liburutegian 20:30ean, Zentro Zibikoan (Txorierrri Etorbidea,17)	LOIU: urtarilaren 27an, 19:00etan, liburutegian
SONDIKA: urtarilaren 21ean, 20:00etan, Kultur Etxean	SONDIKA: urtarilaren 30ean, 19:00etan, Kultur Etxean
ZAMUDIO: urtarilaren 23an, 19:30ean, Zamudiotarren	ZAMUDIO: otsailaren 3an, 19:00etan, Zamudiotarren



Konposta

behar diren adierazten duena. Hondakinak (batez ere prestatu gabeko frutak eta barazkiak, ogia, infusioen poltsatxoak, kafearen hondarrak...) Artigaseko tratamendu-instalazioetara eramaten dira eta bertan konpost bihurtzen dituzte.

Familiek ez ezik ekoizle handiek ere erabil dezakete bosgarren edukiontzia: ikastetxeek, fruta-dendek, loradendek, supermerkatuek eta ostalaritzak. Hamar litroko ontziaren orde, ekoizle handiek edukiera handiagoa duen ontzi bat jasoko dute, gurpilak dituen. Aurreko lerroetan aipatutako materiala ere jasoko dute. Mankomunitatea haiekin jarriko da harremanetan, informazioa eta doako materiala emateko.

Autokonpostajea

Bosgarren edukiontzia erabiltzeko materialaz gainera, Mankomunitateak di-tuen 100 autokonpost-ontzietariko bat eska dezakete doan lorategia edo lursaila duten etxebizitzek. Egurasbide bat, konpostaje-prozesua azkartu egiten duen azeleratzaile bat eta gida didaktiko bat ere jasoko dituzte. Era berean, urtarrilaren 17tik 23ra bitartean informazio-hitzaldi bat eskainiko da Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako bakoitzean. Hitzaldietan interesa duen edonork har dezake parte. Bertan zalantzak argituko dira eta nahi duenak autokonpostajea egiteko materiala eskatu ahal izango du.

Prestakuntza-tailerra ere egingo da urtarrilaren 27tik otsailaren 3ra bitartean udalerrri guztietan. Tailer horietan materiala emango zaie izena ematea aldeztu aurretik eginda dutenei, eta Mankomunitateak horren berri duen kasuetan. Gai nontzekoek bosgarren edukiontzia izen-emate eta hartze-guneetan hartu

*Lorategia edo lursaila
duten etxebizitzek
bosgarren edukiontzia
zein autokonpostajea
erabil dezakete*

BOSGARREN EDUKIONTZIA Izena ematea eta materiala hartzea

DERIO: Kultur Birikan

LARRABETZU: liburutegian (Anguleri)

LEZAMA: udaletxean

LOIU: udaletxean

SONDIKA: liburutegian

ZAMUDIO: udaletxean

beharko dute materiala, dauden 100 aleak agortzen diren arte.

Bestalde, lehenengo hilabeteetan parte-hartzaileek aholkularitza-zerbitzua edukiko dute beren eskura. Gainera, hala eskatzen badute, aditu bat joango zaie etxera materialen erabilera eta konpostaje-prozesua ondo egiten den bermatzera.

Autokonpostajeari esker, hondakinak ekoizten diren lekuan bertan tratatu egiten dira, eta ongarri bihurtu. Hala, ez da beharrezkoa hondakinok tratamendu-instalazioetara garraiatzea. Bosgarren edukiontzian ez bezala, autokonpost-ontzian prestatutako jakien hondakinak ere utz daitezke, besteak beste okela eta arraina, arrautzak...

Txorierriko lehen hezkuntzako ikasleen gurasoentzako ikastaroak				
Guraso eskola	Gaia	Data	Orduetgia	Tokia
Sondika	Gatazken konponketa	martxoak 12	17.00-18.30	Sondikako eskola
	Drugak	martxoak 19	17.00-18.30	
	Sexualitatea eta afektibitatea	martxoak 26	17.00-18.30	
Derio	Gatazken konponketa	otsailak 11	19.00-20.30	Kultur Birika Derio
	Bullyinga eta Cyberbullyinga	otsailak 18	19.00-20.30	
	Bullyinga eta Cyberbullyinga	otsailak 25	19.00-20.30	
Zamudio	Autoestimua	martxoak 25	19.00-20.30	Zamudioko eskola Areta Nagusia
	Bullyinga eta Cyberbullyinga	apirilak 1	19.00-20.30	
	Bullyinga eta Cyberbullyinga	apirilak 8	19.00-20.30	
Larrabetzu	Autoestimua	urtarrilak 20	18.30-20.00	Anguleri Kultur Etxea
	Adimen emozionala	otsailak 17	18.30-20.00	
	Gatazken konponketa	martxoak 17	18.30-20.00	
Lezama	Autoestimua	otsailak 27	18.00-19.30	Lezamako eskola
	Bullyinga eta Cyberbullyinga	martxoak 13	18.00-19.30	
	Bullyinga eta Cyberbullyinga	martxoak 27	18.00-19.30	



TXORIERRIKO MANKOMUNITATEA

Izena emateko:

- Txorierri Elorbidetara, 9-behea: 94-454.03.50 (Jantzi): ekt@txorierri.eu
- Guraso eskolatan: izena emateko fitxa entregatuz / (Larrabetzuren kasuan Anguleri)

Bizi-bizirik Gabonetan



MARMOLGINTZA
GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK ORRAK HILERRIAK

Ugaldeguren 1 ind, 10-8 nabes
40160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 02 93 - Fax: 94 454 50 63

KAFETEGIA
IAZI
JATETxea

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

Carniceria
Charcuteria
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TLFNOA: 94 454 10 75
DERIO
Eskerrik asko
etortzeagatik

Gabonetan gaude. Bai, bagaude. Eta krisian ere bai. Kokotaraino gauzka krisiak. Kokotaraino gaude berari buruz hitz egiten eta berari buruz entzuten. Baina bada oraindik dagokiguna. Neurri batean edo bestean, guztiok nabaritu dugu bere eragina. Eta askok, gainera, bere alderdirik krudelena ezagutu dute.

Baina Gabonetan gaude eta, bakoitzak ahal duen neurrian, beste ahalegin txiki bat egitea ere badagokigu. Oso ahalegin handia kasu batzuetan, zoritzarrez ezinezkoa dena beste batzuetan. Familia eta lagunekin egoteko garaia izateaz gainera, Gabonak gastatzeko garaia ere badiarelako. Otorduak lankideekin eta lagunekin, opariak seme-alabentzat, detaile bat amaginarrebarentzat eta beste bat ilobarentzat, kopa bat aspaldian ikusi ez ditugun lagunekin, opari dezente bat bikotearentzat, benetan merezi duelako, Gabon gaueko afaria, Urte Zaharrekoa, hurrengo eguneko bazkaria... turroirik eta xanpainarik edukiko dugu aurten?

Azken urteetako eta hilabeteetako salmentak zelan joan diren kontuan hartuta, merkatariek beste galdera bat dute buruan: salmenta nahikorik edukiko ote dugu? Eta Gabonei begira, hamaika estrategia eta kanpaina jarri dituzte martxan kontsumoa bultzatzeko. Deskontu bereziak, 2x1 sustapenak, diru-txartelak

Hurbiltasuna, kalitatea eta prezio onak izatea gure merkatarien balio erantziak dira

oparitzea, Gabonetako otzarak zozketa-tzea, oparitxoak ematea...

Begiradaxoa bota diogu Txorierriko merkataritzak eskaintzen digunari eta, egia esan, aukera zabala dugu bailaran. Otordurako erosketak, esate baterako, auzoko edo herriko betiko dendetan egin ditzakegu. Gainera, kasu gehienetan kalitatea ez ezik bertoko produktuak ere eskaintzen dizkigute. Eta zergatik autoa edo trena hartu lagunekin koparen bat hartzeko edo afaritxo bat egiteko, berton jatetxe eta taberna ugari baditugu?

Batzuen ustez, lan gogorra dena dagokigu orain: familiarentzako opariak edo detaileak erostea. Umeekin erraz dugu, zer nahi duten aspaldi honetan behin eta berriro esan digutelako. Ahal dena egingo da. Baina gainontzekoekin asmatzea beste gauza bat da, pistaren bat ere eman ez digutelako. Kasu honetan ere

ahal dena egingo da. Pistarik eman digutela? Ba, askoz errazagoa. Liburuak eros ditzakegu, arropa, bitxiak, loreak, etxetresna elektrikoak, txakolina eta ardoa...

Hamaika ideia

Buruan zerbait originalagoa badugu, ile-apaindegiek edo estetika-zentroek eskaintzen dizkiguten opari-txekeekin saiatu ahal gara. Edo hizkuntza edo hipika ikastaro bat oparitu, zergatik ez? Are gehiago, xahutzeko ez gaudela pentsatzen badugu, praktikoagoak izan gaitzeko eta gure senideren bati hortz-konponketa oparitu. Edo autoaren azterketa, edo aspaldian duen kontraktura osatzeko masajea, edo lorategian ipintzeko landare batzuk, edo guztien artean diru apur bat ipini eta koltxoi egokia erosi... Bai, arrazoia, beharbada ez dira irribarre handia sorrarazten duten opari horietakoak, baina haien beharra duenari laguntzen badiote, ba ongi etorriak!

Hurrengo orrialdeetan ikusiko duzue, Txorierrin hamaika ideia ditugu Gabonetarako. Esparru ezberdinetakoak. Egin behar dugun gauza bakarra da apur bat pentsatzea zerekin nahi dugun senideak eta lagunak aho zabalik utzi. Erabakitzea praktikoak izan nahi dugun, ala originalak.

Gainera, etxean bertan erosteak ekartzen dizkigun abantailak ere hartu behar ditugu kontuan. Ez dugu autoaren beharrik eta ez dugu denborarik galtzen. Era berean, gure merkatariek erraztasunak eskaintzen dizkigute eta, ezagutzen gaituztenez, tratu pertsonalizatua ematen digute. Hurbiltasuna, kalitatea eta prezio onak izatea beren balio erantziak dira. Eta noski, herrian erosten eta kontsumitzen badugu, bertoko ekonomia pizten laguntzen dugu eta bizitza sortzen dugu gure kaleetan. Ea guztion artean Txorierriz bizirik egotea lortzen dugun, Gabonetan ez ezik, urteko gainontzeko sasoi guztietan ere.



OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK
lasai
Luis M^a Asensio
Terapeuta naturopata
Larrabari, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 26 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com

Leire Begoña
ILEAPAINDEGIA
Unisex ileapaindegia
Estetika
Ordutegi jarraitua
Laser-depilazioak
Mungialde etorbidea, 20 DERIO
T: 94 454 26 32

